



HAUTESKUNDE-BATZORDEA

12. atala.- Ordezkaritza Organo Goreneko Kideak hautatzeko hauteskunde-aldia hasitakotzat eman dezan Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta gehienez ere zazpi eguneko epean, hauteskunde-batzorde bat osatuko da ikastetxe bakoitzean.

Batzorde horretako osakideak hurrengoak izango dira:

- zuzendaria, lehendakaria izango dela, eta
- Ordezkaritza Organo Gorenean ordezkaririk hautatu behar duen eskola komunitatearen sektore bakoitzaren kide bat, zozketa bidez aukeratuko dira denak:
 - Irakasleak
 - Irakasleak ez diren langileak
 - Ikasleak
 - Udaletxeko ordezkoa

Halaber, ordezko kide bat hautatuko da sektore bakoitzetik.

Honako hauek **dira batzorde honen egitekoak**, Ordezkaritza Organo Goreneko kideak hautatzeari buruzkoak alegia:

- a) Ikastetxea dagoen herriko udaletxeari eta Ordezkaritza Organo Gorenean ordezkariren bat izendatzeko eskubidea duten beste erakunde publiko eta pribatuei, ordezkaririk horiek izenda ditzatela eskatzea.
 - b) Hauteskunde prozesuko ekintzak noiz egingo diren zehaztea, ahalik jenderik gehien joan dadin saiatuz.
 - c) Hautaketa prozedura arautzen duten arauen berri ematea behar-hainbateko publizitatez.
 - d) Hauteskunde-mahaien osakera sustatzea, horien egitekoak, boto-emanketen buru izatea, bake-giroa zaintzea, boto-emanketaren zuzentasunaz arduratzea eta boto-zenbaketa egitea.
 - e) Hauteskunde prozesuko ekintzak gauzatzeko agindua ematea, honako epe hauei jarraiki:
 - Hautagaiak onartzea eta hautesleen zerrendak gertatzea: gutxienez zazpi eta gehienez hamar eguneko epea, hauteskunde mahaia osatzen den egunetik kontatzen hasita.
 - Hautagaien eta hautesleen zerrenda behin-behinekoz argitaratzea: hauteskunde-batzordeak, hautagaiak onartzeko eta hautesleen zerrenda gertatzeko, ezarritako epea amaitzen den egunaren biharamunean.
- Hautagaien bat elkarte, antolakunde edo taldeko kide lez aurkezten bada, derrigorrezkoa izango da egoera horren berri ematea izangaiak aldarrikatzeko unean.
- Izangaien eta hautesleen behin-behineko zerrenden aurkako murtziloak aurkezteko epea: hiru egun gehienez, zerrenda horiek argitaratzen diren egunetik kontatzen hasita.
 - Aurkeztutako murtziloen ebazpena: hiru egun gehienez, murtziloak aurkezteko epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita.



- Izangaien eta hautesleen zerrendak behin-betikoz argitaratzea: murtziloak ebazten diren egunaren biharamunean.
- Hautaketa ekintzak gauzatzeko epea: gutxienez lau eta gehienez zazpi eguneko epea, izangaien eta hautesleen zerrendak behin-betikoz aldarrikatzen diren egunetik kontatzen hasita.
- Boto-emanketetan lortutako emaitzak argitaratzea eta hautatuak behin-behineko aldarrikatzea: hautaketa-ekintza egiten den egunaren biharamunean.
- Hauteskundeetako emaitzen eta hautesleen behin-behineko zerrendaren aurkako murtziloak aurkezteko epea: gehienez hiru egun, horiek argitaratzen diren egunetik kontatzen hasita.
- Aurkeztutako murtziloak ebaztea: hiru egun gehienez, murtziloetarako jarritako epea amaitzen den egunetik kontatzen hasita.
- Hauteskunde emaitzak eta hautatuen zerrenda behin-betikoz argitaratzea: murtziloak ebazten diren egunaren biharamunean.

b), c) eta e) idaztietan xedatutakoaren araberrako ebazpenak, ikastetxeko iragarpen-holtzean jarriko dira.

13. atala.

- 1.- Idatziz ebatzi ez daitezzen murtziloak, ebazpenerako jarritako epea igaro ondoren, ukatutakotzat joko dira.
- 2.- Behin-betiko zerrenden aurka errekurtsio arrunta sar daiteke dagokion Hezkuntza Lurralde Ordezkararen aurrean, hilabete bateko epearen barruan.

4.-Hauteskunde Batzordea.

Ez zuzendariak ezta zozketaz Hauteskunde Batzordeko partaide izan behar duten beste pertsonak ere, ezin diote Batzordean parte hartzeari uko egin.

Ikastetxeko zuzendaria, irakaslegoaren eta irakasle ez den pertsonalaren ordezkariek bezalaxe, Administrazioako langileak direla kontuan izanik, behartuta daude Hauteskunde Batzordeak ospatzen dituen bilera guztietara joatera eta dagozkien betebeharrak egitera.

Edonola, Batzordeko partaideren bat ez badago ere, Batzordeak hartutako erabaki guztiak baliogarriak izango dira.

Hauteskunde Batzordeko partaide izatea ez da izango oztoporik partaidea hautagaia izateko, eta OOGa osatzeko dagokion estamentuko ordezkaria izateko.